

KANBOKO HERRIKO KONTSEILUKO BILKURA

2017ko IRAILAREN 11an

Herriko Kontseilua 2017ko irailaren 11an herriko etxean bildu da 19:00etan, Bernadette JOUGLEUX Anderearen lehendakaritzapean.

Hor ziren: Bernadette Jougleux, Auzapeza, Eliane Noblia, Frédéric Bardin, Pascale Lespade, Didier Irastorza, Henri Saint Jean, Anne-Marie Pontacq, hauek auzapez orde izanik, Christiane Hargain-Despéries, Patrice Dor, Yolande Huguenard, Jean-Jacques Lassus, Argitxu Hirigoyen, Jean-Noël Magis, Corinne Othaceguy, Peio Etchelecu, Maryannick Hirigoyen, Carmen Gonzalez, Pascal Bourguet, Véronique Larronde, Camille Jenvrin, Argitxu Hiriart-Urruty, Philippe Bacardatz, Nathalie Aïçaguerre, Amaia Beyrie, herri kontseilari izanik.

Ezin etorriak: Christian Devèze, Eliane Aizpuru, auzapez ordeak, Vincent Goytino, Vincent Bru, Roger Barbier, herri kontseilariak.

Ahalordeak: Christian Devèze jaunak Eliane Noblia andereari, Eliane Aizpuru andereak Didier Irastorza jaunari, Vincent Bru jaunak Bernadette Jougleux andereari, Vincent Goytino jaunak Argitxu Hirigoyen andereari, Roger Barbier jaunak Carmen Gonzalez andereari.

1 – Saioko idazkariaren izendapena.

Hor zirenek aho batez Argitxu Hirigoyen anderea izendatu dute saioko idazkari.

2 – Iragan saioko aktaren onarpena.

Auzapez andereak Herriko Kontseiluko kideei galdetzen die ea badutenez 2017ko uztailaren 22ko saioaren aktari buruz oharririk egiteko.

Ez da oharririk egin eta iragan saioko akta aho batez onartua izan da.

3 – Emaria Frantziako Fundazioari.

Auzapez andereak oroitarazten du 2017ko irailaren 6an Irma urakanak Antilletako uharteak bortizki kolpatu dituela, bereziki Saint-Martin eta Saint-Barthélémy. Herriko Kontseiluko kideei proposatzen die herriak 1000 €ko emari bat egitea Frantziako Fundazioari.

Auzapez andereak bozkara ematen du.

Aho batez onartua.

4 – Animazio gelaren eraikuntza: obralariaren izendapena.

Auzapez andereak oroitarazten du hiru arkitektura aitzin-proiektu aurkeztuak izan direla. Hautua ez da biziki zaila izan, bereziki herriak egin zituen eskaerei begira, hala nola, metala eta zura erabiltzea, proiektua San Josepe parkean integratzea, azalera berezia eta euritik babesteko bi aldeak hetsiak izan beharra. Ad hoc batzordeak hautagai bat atxiki du.

Auzapez andereak baztertu diren proiektuak aipatzen ditu: lehena ederra zen, modernoa baina ez zen batere San Josepe parkean integratzen.

Bigarrena parkean integra zitekeen, aski xumea zen, aski zurruna ere baina bazuen eragozpen handi bat. Teilatuak hamabi gora-behera zituen. Estetikoki ez zen bikaina, baina arazo larriena da hamabi teilatu-hodi garbitu beharko zirela urtean bi edo hiru aldiz parkeko zuhaitzen hostoak kentzeko.

Ad hoc batzordeak LECCIA arkitektoaren proiektua atxiki du. Honek hobeki ihardesten baitzion herriaren nahiari. Bulego horrek bi maldako teilatu bat eta beste bat txikiagoa, hau ere bi maldakoa, proposatzen ditu. Teilatua zink, kobre edo teilaz egina izanen da. Gai hau T.H.P.arekin (Tokiko Hirigintza Plana) segurtatu beharko da.

Auzapez andereak oroitarazten du proiektua ez dela oraindik finkatua, arkitektura aitzin-proiektuaren urratsa baizik ez baita. Bi aldetan altzairuzko zutoinak izan litezke, hots lau metro guttiz zutoin lerro bat, zati mugikorak ideki ahal izateko, kontraleihoak bezala, eta urrunago den zutoinari lotzeko gisan.

Proiektu honen interes bat da, bi teilatu finkoekin bi eremu osatzen direla eta aldeak idekitzean eremu bereziak sortzen direla. Batzordea kezkatua zen kontraleihoak ez ote ziren hauskorak izanen, baina kontraleihoak zurezko pertsianak dira eta egitura altzairuzkoa da.

Egia da zaila dela proiektua irudikatzea, batzordeak berak irudimen gaitasun handia erakutsi behar izan du. Arkitektura proiektu horretan zura bada. Zura, ekologikoki bikaina da baina ez da beti oso estetikoa. Auzapez andereak ohartarazten du batzuetan zurak gris bilakatzen direla, baina arkitektura bulegoak batzordeari segurtatu diola zurak gris ez bilakatzeko tindu berezi bat eman behar zaiola jatorrizko kolorea atxiki dezan.

Ororen buru, proposamen hau bat dator osoki kolektibitatearen nahiarekin, San Josepe parkean bikain integratzen da; orain proposamen zehatzagoa beharko da, plano batekin.

Ondorioz, ad hoc batzordeak LECCIA bulegoa hautatzea proposatzen du.

Aiçaguerre andereak jakitera ematen du bere taldea, Nahi Dugun Herria, joan den ostiralean bildu dela eta gai hau berriz aipatu dutela. Galdetzen du ea herriak Departamenduko Kontseiluak bultzatu proiektu bati ihardesten ote dion. Kolektibitateak proiektu hau hautatzea erabaki du eta espero du Departamenduko Kontseiluko diru-laguntza ukanen duela, %30 artekoa izan daitekeena hain zuzen. Jakin nahi luke ere nola diruztatuko den proiektu horrentzat ordaintzeko geldituko dena. Joan da ikustera Departamenduko Kontseiluak zer eskatzen duen hautagai izateko. Gauza anitz eskatzen dute, eta bere taldeak ez daki gela horren kudeaketa nola egingen den; proiektu horrek egiazko behar bati erantzuten dio? Inkestarik egin dea? Iruditzen zaio proiektu deialdi horretan gauza anitz eskatzen dela eta bere taldeko kideek ez dutela argi ikusten nora abian diren.

Auzapez andereak baieztatzen dio proiektuak behar bati ihardesten diola, ezen Kanbon ez baita ekitaldi txikiak antolatzeko leku estalirik. Aiçaguerre andereak txostena irakurri baitu, ohartuko zen ekitaldi horien artean azoken antolaketa ere sartzen dela. Denek dakigu Euskal Herrian hobe dela beti leku estali bat prest ukatea. Karriketan edo beste leku idekietan ekitaldi kulturalak antolatzen direnean eta euria egiten badu ez dugu aterperik. Herriak antzerkia, dantza edo kantua

antolatu nahi dituenan ez dago ekitaldi horiek antolatzekeo egitura estalirik. Gela hau eginez, herriak behar guzti hauei erantzun bat emango lieke. Auzapez andereak pentsatzen du Aizaguer anderea ados dela berekin Kanbon halakorik ez dagoela erraten duelarik.

Aurrekontuari dagokionez, Auzapez andereak oroitarazten du Departamenduko Kontseiluko pertsona batek bere sostengua ekartzen diola herriari. Pertsona horrek aurrekontua zenbatekoa izan beharko litzatekeen adierazi du eta lan horiek egiteko 500 000 €ko kopuru bat pentsatua dela.

Aizaguer anderea ados da aurrekontu horrekin. Ikusi du Departamenduko Kontseiluak %30 hartzen zuela bere gain, eta galdetzen du ordaintzeko gelditzen dena nola diruztatua izanen den. Finantzamendua deialdian agertu behar denez, gehiengoak ba al daki nola eginen den edo herriak ordainduko ote dituen gelditzen diren % 70ak?

Auzapez andereak erantzuten dio begi bistakoa dela herriaren gain geldituko den zatia, behin Departamenduko laguntza kendu eta, 2018ko inbertsioen aurrekontuan sartuko dela. Hori bere denboran ikusiko da. Auzapez andereak gehitzen du fite erabaki behar dela txostena irailaren 27a aitzin eman behar baita.

Aizaguer anderea gela horren kudeaketara itzultzen da. Ekitaldiak maiz aste buruetan antolatuko dira. Herriak jenderik kontratatuko duen galdetzen du.

Auzapez andereak ihardesten dio, frontoia aspaldian hor dela eta frontoiaren kudeaketaz kezkatzen ote den. Gela hau eremu estalia izanen da, berez zaindu beharko dena, baina beste egitura guztiak zaintzen diren bezalaxe. Herriko beste gelentzat bezala erabilpen hitzarmenak eginen dira. Lekua erabiltzeko askatasun handia izanen da, baina halere eskaera egin beharko da.

Bardin jaunak gehitzen du, gaur egun elkarteek ekitaldiak antolatzen dituztelarik, eta egun hartan euri bada, ezker paretako edo kirol gelako gakoak hartzea pentsatzen dutela beren ekitaldia egin ahal izateko. Ez da herriko langilerik joaten gela idekitzera. Baina, ekitaldia aitzin eta ondotik lekuaren egoera-akta bat egin daiteke. Gela horri esker, aterpe gunea bat eta ekitaldiak antolatzekeo leku bat izanen dugu. Gehiengoan denek pentsatzen dute holako tresnarik ez zela eta beharrezkoa zela Kanbon ekitaldiak antolatzekeo.

Auzapez andereak zehazten du gela hori skatepark-a eta agoospace joko gunea bezala kudeatuko direla. Ez da gelarentzako kudeatzailerik izanen. Zainketa beste gelentzat bezala eginen da. Gela horrek erosotasun gehiago ekarriko du. Musikaren bestari pentsatzen du, non denak kontent izanen diren leku estali bat ukateaz. Ekitaldi askok behar dute aterpetzeko leku bat, eta gaur egun Kanbon halakorik ez da. Kanborentzat biziki baikorra da.

Hiriart-Urruty andereak gehitzen du argi dela Kanbok gela bat behar duela, baina bere taldeak zalantza du, hau aski txikia baita eta halere 500 000 € kostatuko baita. Eremu horrek behar batzuei erantzuten die baina ez du gela handi bat ordezkaturiko, adibidez bazkari bat antolatzekeo, eta handi batekin gauza gehiago egin daiteke. Gehiengoan Toki Eder pareko Tillac lur sailan holako gela edo erabilera anitzeko gela bat egiteaz gogoetatu zen. Oronen buru, uste du 20m x 20mko gela hau aski mugatua izanen dela.

Auzapez andereak ihardesten dio gela horrek 500 m² eginen duela, 60 m²ko oholtza batekin, hirurehun edo lauhun lagunentzako jarlekuak ezartzeko aukerarekin, gehi aulki lerro batzuk. 1000 m²ko gela bat, aldagela eta sukalde batez amets egin genezake baina oraingoz horretan gelditu behar da.

Hiriart-Urruty andereak ez du uste oholtza gelaren barnean ezartzea ideia ona den. Batzuek bazkari bat antolatu nahi badute horrek oztopo eginen die.

Auzapez andereak erantzuten dio halere 440 m² gelditzen direla, hots 400 lagun, pertsona bakoitzeko 1 m². Zinez proiektu ona dela uste du.

Zerbitzuetako zuzendari nagusiak gela horren diruztatzeaz zenbait xehetasun ematen du. Txosten osoa Departamenduarentzat prestatu behar da baina bigarren diru iturri bat balegoke. 2018 L. E. E. Z. (DETR; Landa Eremuetako Ekipamendu Zuzkidura) eska genezake. Oraingoz herriak ez du LEEZ-ari begirako txostenik prestatu. Ez daki ea frantses Estatuak parte hartuko lukeen ezta zenbateraino ere, baina herriak %50eko diru-laguntza jaso lezake, nahiz eta hau espekulazio hutsa den.

Auzapez andereak bozkara ematen du.

Gehiengoz onartua. Ez dute bozkatu: Hiriart-Urruty, Philippe Bacardatz, Nathalie Aïçaguerre, Amaia Beyrie jaun andereek.

5 – 2017-2018 saneamendu programa / 2017 1. fasea / 2017 2. fasea : obragintza eginkizuna.

Zerbitzuetako Zuzendari Nagusiak adierazten du Devèze jauna hor ez izanik, ez duela ariketa horretan bera ordezkatzeko xederik, baina ahal bezain bat informazio ematen saiatuko dela.

Saneamenduaz lau ohar: 2017-2018 programa, 2 fasetan zatitzen den 2017ko programa eta ondotik saneamendu eskema zuzentzailea.

Herriak saneamendu lanen programa hirutan zatitu du, hainbat arrazoiengatik, baina bereziki lan hauek ahal bezain bat aitzina daitezten hemendik urte hondarrera. Oroitarazten du 2018ko urtarrilaren 1ean Euskal Hirigune Elkargoak duela saneamendu kolektiboaren eskumena hartuko eta bestalde URA sindikata mistoak banakako saneamenduaren eskumena hartuko duela.

Horregatik da gauzak ahal bezain laster egiteko premia, lan zenbait gelditzen baita oraindik egiteko.

2017-2018 saneamendu programari dagokionez, oroitarazten du aurreikusi diren lanen zerrenda saneamendu batzordean adostu direla:

- Ezpeletako bidean, Intermarché-ko biribilgunearen eta ehorzketa etxeko biribilgunearen artean, kanporatze hoditeriaren neurria egokitu eta azkartu,
- PR ALKI kanporatze postuaren neurria egokitu eta azkartu,
- Xerri-Karrikan eta Geltokiko bidean isurtze profilak ikertu, konpondu eta berriztatu,
- Toki-Eder-eko biribilgunearen eta Behereko Plazako zubiaren artean, Geltokiko Maldan saneamendu sarea berritu,
- Ur-bidea errepideko ortzi isurgian den kontra-malda eta isurtze arazoa,
- Palassimborda esparruetan sareak egokitu eta berriztatu.

MAPA batzordea agorrilaren 29an bildu zen eskaintza gutun azalak idekitzeko, eta hasiera batean egun egin behar zen txostenen azterketa irailaren 8ra aitzinatu zen. Herriko Kontseilu honetan hautatuko den obralariak bere txostena lehenbailehen egin beharko du lanak ahal bezain laster hasteko gisan. Lan hauetarako 700 000 € inguruko diru-kopuru bat finkatu da.

Lan hauek biziki pizuak eta garrantzitsuak izanik, herriak ez du uste MAPA batzorde bat bilduko dela abendu hasiera aitzin. Horrek erran nahi du beste Herriko Kontseiluko bilkura bat egin beharko dela abendu erditsutan lan zati hau onesteko.

Beste behin, ZZN-ak (Zerbitzuetako Zuzendari Nagusia) oroitarazten du saneamendu programa hau hirutan zatitu dela obralari bakar bat ez ukateko, jakinez lan guztien aurrekontua 1 300 000 €koa dela. Nahiz eta obralaria bertze enpresa batzuekin elkartu, ezingo digu bere txostena epe normaletan helarazi, hots urte bukaera aitzin.

2017ko saneamendu programari dagokionez, lehen faseko lanak hauek dira:

- Bekikatenea bideko sarearen erreabilitazioa,
- Delbarre, Sierra, Hiriart, Etchetoa, Alzuya eta Camino auzoguneetako sareen erreabilitazioa,
- Oyhanburua bideko sarearen egokitzapena eta erreabilitazioa,
- Edmond Rostand hiribidean gaizki egina den euri uren lotura bat bereizi.

Lanen zati honi dagokionez, eskaintza gutun azalak agorrilaren 21eko MAPA batzordean ideki ziren, baina batzordekideek deialdia berriz egitea erabaki dute, obralariak egin zituzten proposamenak ikusirik. Eskaintza gutun azalak irailaren 5ean asteartez ideki ziren eta irailaren 8an ostiralez aztertu. 2017-2018 saneamendu programarekin bezalaxe, obralariaren lana lehenbailehen hasiko da enpresen kontsulta eperik laburretan egiteko. Lan hauek biziki piztuak eta garrantzitsuak izanik, herriak Herriko Kontseiluko bilkura bat aurreikusten du azaroko bigarren erdian, lanak aurten has daitezten.

2017ko saneamendu programaren bigarren faseari dagokionez, batzordeen datak lehen fasearen data berak dira. Horkoan ere deialdia berriz egin da. Hona aurreikusten diren lanak:

- Behereko plazako errepideko sarea erreabilitatu, geltokiaren eta trenbide zeharkagunearen artean,
- Behereko plazako eta Agniano Borda eta Garroenborda karrika itsuetako sareak erreabilitatu.

ZZN-ak zehazten du hiru puntu hauentzat obralaria hautatu nahi dela lehenik eta gero lanen fasea abiatuko dela.

Saneamendu eskema zuzentzaileari dagokionez, ZZN-ak elementu historiko batzuk oroitarazten ditu. 2014ko ekainean, frantses Estatuak, LIDeZ-aren (Lurralde eta Itsasoko Departamenduko Zuzendaritza / DDTM) bidez, herriari saneamendu eskema zuzentzaile berri bat egitea eskatu zion, jakinez orain arte indarrean dena 2004ean adostu eta 2011ko abenduko prefekturaren erabakiz berretsi zela.

2015ean, frantses Estatuak, prefekturaren erabakiz, herria behartzen zuen 2016ko irailaren 1erako eskema hori ematera. Iragan udaberrian, LIDeZ-ko ordezkariak azaldu zuten herriak ezin zezakeela epe hori gehiago luzatu. Saneamendu eskema zuzentzaile hori landu behar zela erran zuten, bereziki 2016ko maiatzean herriak euri uren eskema zuzentzaile bat bideratu baitzuen.

2017 irailaren 1eko gutun batean, frantses Estatuak, LIDeZ-ko ordezkariekin egin zen bilkuraren ondotik, herriari eskatzen dio ikerketa lan hori egingen duen ikerketa bulegoaren izena irailaren 30a aitzin jakinaraztea, baita zerbitzu aginduaren kopia ere, ikerketa lana noiz hasiko den jakiteko.

5a – 2017-2018 saneamendu programa: obralariaren izendapena.

ZZN-ak dio MAPA batzordeak HEA (Hydraulique Environnement Aquitaine) ikerketa bulegoa hautatzea proposatzen duela, bere eskaintza merkeena baitzen. Auzapez andereari baimena eman behar zaio obralariarekin kontratua izenpetzeko. Enpresa horrek %3.50eko tasa bat proposatzen du, hots 24 500 € ZK-ko sari bat. Deliberoak kontutan hartuko ditu Aturri-Garona Ur Agentziari, Departamenduari eta Errobi Isurialdeko Sindikata Mistoari egingen zaizkien diru laguntza eskaerak.

Bacardatz jaunak ohartarazten du Geltokiko etorbidean saneamendu lanak agertzen direla 2017-2018 programan eta 2017ko programaren bigarren fasean ere. Geltokiko etorbidean bi lan egin behar badira, zergatik ez ditugu ber proiektuan sartzen?

Leku horretan lan egingen duten enpresei begira, ongi litzateke ber enpresak lotura egin dezan bi lanen artean. Bada bi enpresa lanean ezartzeko arriskua, bi garai desberdinetan, baina lanen fase bakar batean.

ZZN-ak ihardesten dio ez duela erantzun teknikorik emateko. Galdera kontutan hartzen du, eta aste bukaerarako kontseilari guztiei helaraziko die erantzun bat. Espero du arrazoi tekniko bat badela; bestela, bi ekintza hauen edukia aldatzeko parada ere izanen da.

Magis jaunak zehazten du, saneamendu batzordean Devèze jaunak adierazi zuela funtzionamendu logika batzuk badirela. 2017-2018 programako 4a ekintzan, isurtze arazo larriak badira eta geltokiko etorbideak deslotu behar dira. Arazo hauek konpontzeko Devèze jaunak ekintza bakar bat egitea erabaki zuen eta geltokiko etorbideari dagokionez, bigarren ekintza bat egingen da, funtzionamenduaren aldetik ez baita inolako loturarik. Sarea ez da berez isurtzen, grabitatez, baizik eta kasik urak kanporatuz.

Bacardatz jaunak dio, geltokiko etorbideari buruz, pena dela errepidea egin izana orain berriz lanak egiteko. Hodiak ezartzea besterik ez da, baina agian ez da arazorik izanen errepidea ez idekitzeko. Hor bizi direnentzat ere konplikatuak izanen da. Bi lan fase jasan beharko dituzte.

Auzapez andereak bozkara ematen du.

Aho batez onartua.

5b – 2017ko saneamendu programaren 1. fasea: obralariaren izendapena.

ZZN-ak oroitarazten du irailaren 8ko MAPA batzordean aztertu diren kontsultaren emaitzen ondotik, Herriko Kontseiluak IDEIA VRD enpresa hautatzeko proposamena onetsi behar duela. Enpresa horren proposamena merkeena zen %3,76ko tasa batekin, hots 11 281,25 €ko sari batekin.

Auzapez andereak Herriko Kontseiluari eskatzen dio IDEIA enpresarekin kontratua izenpetzeko, baita Aturri-Garona Ur Agentziari, Departamenduari eta Errobi Isurialdeko Sindikata Mistoari diru-laguntza eskaerak egiteko baimena ematea.

Auzapez andereak bozkara ematen du.

Aho batez onartua.

5c- 2017ko saneamendu programaren 2. fasea: obralariaren izendapena

Auzapez andereak zehazten du Herriko Kontseiluak bere onemena eman behar duela MAPA batzordeak egin duen proposamenaren gainean:

- SCE enpresa hautatzea bere eskaintza merkeena baitzen, %3,75eko tasa batekin, hots 10 500 €ko sari batekin,
- Auzapez andereari baimena ematen dio SCE enpresarekin kontratua izenpetzeko, baita horri loturiko agiri guztiak ere,
- Auzapez andereari baimena ematen dio Aturri-Garona Ur Agentziari, Departamenduari eta Errobi Isurialdeko Sindikata Mistoari diru-laguntzak eskatzeko.

Auzapez andereak bozkara ematen du.

Aho batez onartua.

6 – Ikerketa diagnostikoa eta saneamendu eskema zuzentzailea: ikerketa bulegoaren izendapena.

ZZN-ak zehazten du jadanik aipatu duela 2016ko maiatzean bozkatu zen euri uren eskema zuzentzailea. Ikerketa horrek zortzi eta hamar hilabete artean irauin behar zuen, baina 2017ko urtarrilean gelditua izan da, alde batetik LHP-aren berrikusketa orokorrak (Lekuko Hirigintza Plana / PLU) emanen zituen gomendioak kontutan hartzeko, eta bestetik euri uren ikerketa hori saneamendu eskema zuzentzailean txertatzeko.

Gaur egun, herriak uste du ikerketa hidraulikoa segituko dela, jakinez gainera, euri uren ikerketa egiten zuen ARTELIA enpresak duela saneamendu eskemarentzat eskaintza onena egin.

Auzapez andereak Herriko Kontseiluari proposatzen dio ARTELIA enpresa hautatzea, bere eskaintza, 48 371,96 € ZHko kopuru batekin merkeena baitzen, eta enpresa horrekin kontratua eta horri loturiko beste agiriak ere izenpetzeko, baita Aturi-Garona Ur Agentziari, Departamenduari eta Errobi Isurialdeko Sindikata Mistoari diru-laguntza eskaerak egiteko baimena ematea.

Auzapez andereak bozkara ematen du.

Aho batez onartua.

ZZN-ak xehetasun batzuk ematen ditu saneamendu lan horien diruztatzeaz. Ez da pentsatu behar herriak 1,4 milioi euroko zama Euskal Hirigune Elkargoaren gain uzten duela. Ez da hori Kanboko herriaren politika. 2016ko martxoan bozkatu zen aitzinkontuan, 1,4 milioi euroko kopuru hori existitzen zen, baina ikerketarik egin ez baitzen, ez zen argi zertara bideratuko zen. Ondorioz, ez da mailegurik eginen, ekintza autofinantzatzen da. Bistan da, iragan urteetan egin ziren maileguen zorrak baditugula, eta horiek Euskal Hirigune Elkargoaren pasibora joanen direla, baina ahal bezain laster egin behar ditugun programa horientzat, abenduaren 31ean dena bozkatua eta bideratua izateko gisan. Arrats honetan bozkatu diren ekintzek ez diote Euskal Hirigune Elkargoari gastu gehigarriker erantsiko.

7 – Paxkoenea bidearen zabaltzea: lur sail baten erostea eta eremu publikora pasatzea.

Magis jaunak oroitarazten du iaz herriak Paxkoenea bidean antolamendu eta mantenimendu lanak egin zituela. Denek gogoan dugu behin emazte batek traktore batekin gurutzatu nahian egoera larrian gelditu zela arroilan behera kokatua. Lan horien karietara herriak bidea zabaldu du. Herria Saint Esteben jaun andereak ikusi ditu, beren B 2272 lur sailaren zati bat herriari urririk emango ziotenez galdetzeko, bidea zabaltzeko xedearekin. Onartu dute.

Orain inkesta publikoa egin behar dugu errepide zati hori eremu publikora pasatzeko.

Beraz, Herriko Kontseiluari galde egiten diogu:

- lur saila euro sinboliko baten truke erosteko printzipioa onestea,
- behar den inkesta publikoa abiatzea,
- lur sail hori eremu publikora pasatzea onestea,
- zehaztea, gastu guztiak (aktak, geometroa, inkesta publikoa...) herriaren gain izanen direla,
- Auzapez andereari baimena ematea ekintza hori burutzeko formalitate guztiak egiteko.

Auzapez andereak bozkara ematen du.

Aho batez onartua.

8 – Diru-laguntzak.

Dor jaunak jakinarazten du « Pays Basque Au Cœur » elkarteak egin duen diru-laguntza eskaera bat badela. Elkarte hau orain hamar bat urte sortu zen, Ipar Euskal Herri barnealdeko merkatarien batasunak elkartzeko; batasun hauen artean, Donapaleu, Donibane Garazi, Hazparne eta Maulekoak dira nagusienak. Bere xedea da Ipar Euskal Herri barnealdeko saltokiak animatzea, baita dinamizatze proposamenak eta enpresek opari txekeak onartu ahal izatea ere. Hauek enpresa komiteei zuzenduak zaizkie bereziki, ohitura baitute, batzuek beren langileei opari txekeak ematea, Urssaf-ek urtero langile bakoitzari 200 € emateko eskubidea onartzen duelako opari txeketan. Batzuek Frantzia mailako opari txekeei ematen diete lehentasuna, eta ondorioz jendeak hiriguneetara eta saltoki handietara jotzen du erosketak egitera.

Elkarte horren ideia da saltoki eta merkatari txikienei ere txeke hauek Ipar Euskal Herri barnealdean erabiltzeko aukera ematea.

Hortaz, orain bi urte jadanik eskaera egin zioten Kanboko merkatarien batasunari. Hausnarketa baten ondotik, « Pays Basque Au Cœur » elkarteko kide izatea erabaki du. Kanboko Merkatarien Batasunak jadanik bilkurak egin ditu bulegoarekin. Kanboko Merkatarien Batasuna "Pays Basque Au Coeur" kide izatearen truke, elkarteak herriari parte hartze sari bat eskatzen dio. Elkarteak dituen gastuen artean bada saltoki guztiak biltzen dituen web gune baten kudeaketa.

Gehiengoko taldearekin eztabaidatu eta, herriaren parte hartzeak Kanboko merkatariari sostengua ekarriko lieke, ezen Kanboko saltoki eta ofiziale txikiak Interneten eta afitxa bidez ikusgarriago izateko beharra baitute. Orain arte hauek herriaren web gunean ezartzeko gogoeta bat egin da, baina ez da oso egokia, web gunea jadanik publikoarentzako informazioz ongi hornitua baita. Hau ez da leku onena Kanboko merkatariak agerian ezartzeko. « Pays Basque Au Cœur » webguneak ikuspegi profesionalagoa du eta ondorioz egokiagoa dirudi.

Elkarteak 1 300 €ko parte hartzea eskatzen dio herriari. Horri esker, Kanboko merkatariak ikusgarritasun handiagoa izango lukete Interneten beren informazio, argazki eta webgunerako estekarekin.

Auzapez andereak gehitzen du herria diru-laguntza hori onartzeko biziki aldekoa dela, lekuko merkatariari laguntza ekarriko dielako eta herriak berak interesa baitu erosleak Kanbon atxikitzeko. Ondorioz, biltzarkide guztiei eskatzen die 1 300 €ko diru-laguntza bakar horren alde bozkatzea.

Dor jaunak berresten du diru-laguntza hori aurten bakarrik emanen dela.

Auzapez andereak bozkara ematen du.

Aho batez onartua.

Auzapez andereak azaltzen du bigarren diru-laguntza eskaera Emazte eta Familien Eskubideen Informazio Guneko "Egalité Femme Homme 64" elkarteak aurkeztu duela. Evelyne Ibarrart anderea elkarte horretako kide da. Bere bidez 400 €ko diru-laguntza bat eskatzen dute. Kopuru hau beste herrietan ere eskatzen duten laguntza orokor baten zati bat baizik ez da. Gela bat eskura ezartzeko hitzarmen bat izenpetua izan da elkarte horrekin hilabeteko lehen ostiral guztiz zailtasunetan diren pertsonen harrera bat eskaintzeko 9:30etatik 11:30etara.

Auzapez andereak bozkara ematen du.

Aho batez onartua.

9 – Euskal Hirigune Elkargoa : herriko ordezkariaren bozketa.

Auzapez andereak oroitarazten du Vincent Bru jauna Pirinio Atlantikoetako 6. barrutiko diputatu hautatua izan denetik frantses legebiltzarreko iragan hauteskundeetan, Elkargo Batzordeko eta Batzorde Iraunkorreko karguetatik dimisioa eman diola Euskal Hirigune Elkargoko lehendakariari 2017ko ekainaren 10eko gutun baten bidez.

Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorreko (LKKO/CGCT) L 5211-6-1 artikulua arabera beste bozketa bat egin behar da elkargoko kontseilari postua betetzeko.

Auzapez andereak hautagairik ba ote den galdetzen du.

Bernadette Jougleux andereak, auzapeza, bere burua aurkezten du baita Argitxu Hiriart-Urruty andereak ere.

Auzapez andereak bozketa eskuak altxatuz egitea proposatzen du Herriko Kontseiluko kide guztien adostasunarekin.

Bernadette Jougleux anderea, Kanboko auzapeza, hautatua izan da: 24 boz 28ren gainean. Argitxu Hiriart-Urruty andereak 4 boz ukan ditu.

10 – Batzordeetako kideen bozketak.

Auzapez andereak adierazten du uztailaren 22an herriko auzapez hautatua izan denetik, titularra zen batzordeetan ordezkatu behar dela: deialdi/kontsultzak, MAPA eta Zerbitzu Publiko Delegazioen batzorde berezia.

Auzapez andereak bera ordezkatzeko hautagairik ba ote den galdetzen du.

Didier Irastorza jauna hiru batzordeetan titular izateko aurkezten da.

Bacardatz jaunak dio hiru batzorde hauek usu egunez biltzen direla. Galdetzen du bere taldeko hiru kideetako batek ordezkari izateko dezakeen hor izanen ez den denboran.

Auzapez andereak erantzuten dio galdera hau jadanik egin zela batzordeentzat eta baiezko erantzuna eman zela.

Auzapez andereak bozkara ematen du.

Didier Irastorza jauna hautatua izan da deialdi/kontsultzak, MAPA eta Zerbitzu Publiko Delegazioen batzorde berezia batzordeetan, 28 bozekin 28ren gain.

Auzapez andereak gehitzen du Didier Irastorza jauna batzorde horietan ordezkari zela jadanik eta ondorioz bere ordeko bat hautatu behar dela.

Auzapez andereak hautagairik ba ote den galdetzen du.

Pascale Lespade andereak bere burua aurkezten du.

Auzapez andereak bozkara ematen du.

Pascale Lespade anderea hautatua izan da deialdi/kontsultzak, MAPA eta Zerbitzu Publiko Delegazioen batzorde berezia batzordeetan, 28 bozekin 28ren gain.

11 – Gizarte Ekintzako Udal Zentroko Administrazio Kontseilua.

Auzapez andereak jakinarazten du Pantxo Michelena jauna, Gizarte Ekintzako Udal Zentroko (GEUZ) Administrazio kontseiluko kidea zendu denetik, hutsik gelditu den aulkia betetzeko kide berri bat izendatu behar dela.

Auzapez andereak oposizioari galdetzen dio hautagairik ba ote duen.

Amaia Beyrie andereak bere burua aurkezten du.

Auzapez andereak bozetara ematen du.

Amaia Beyrie anderea aho batez izendatua da GEUZ-eko Administrazio Kontseiluko kide.

Peio Etchelecu jauna gelan sartzen da.

12 – URA Sindikata Mistoaren estatutuen aldatzea.

Magis jaunak ohartarazten du estatutuen aldaketak ur edangarriaren eta saneamenduaren gainekoak direla. URA Ur Edangarriaren eta Saneamendu batzordea 2017ko ekainaren 22an bildu da eta estatutuen aldaketak onetsi ditu.

Oroitu behar da, Euskal Hirigune Elkargoa sortzearekin hamar HELEP desegin direla. URA sindikatan ordezkariak dituzte bai herriek eta baita Errobi-Aturri Herri Elkargoak ere.

Errobi-Aturri Herri Elkargoa desegin baita, Euskal Hirigune Elkargoa sortu denetik, azken honek ordezkariak izendatu behar ditu URA Sindikatan ordezkaria izateko.

Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorraren arabera, sindikateko kide den herri bakoitzak hiru hilabete ditu estatutu berriei buruzko erabaki bat hartzeko, gehiengo kalifikatuarekin (populazioaren erdia ordezkatzeko duten herrien 2/3ak edo populazioaren 2/3ak ordezkatzeko dituzten herrien erdia).

Herriko Kontseiluak estatutu hauen aldaketaz bere iritzia eman behar du.

Auzapez andereak bozkara ematen du.

Aho batez onartua.

13 – Justizian jarduteko baimena.

Auzapez andereak oroitarazten du elizako plazan egin diren lanen denboran pertsona zenbait erori dela. Bereziki Kanbon kura bat egiten ari zen pertsona bat. Ondorioz bere arta egonaldia eten behar izan du. Eroraldi horrek azkarki hunkitu zuen. Gainera, lana xekatzen ari zen eta bere lan xekatzea utzi behar izan du. Herria auzitara eraman du.

Auzapez andereak Herri Kontseiluari proposatzen dio :

- baimena eman diezaiola auzi horretan herriaren interesak defendatzeko, Paueko Administrazio Auzitegian eta behar balitz beste jurisdikzioetan,
- baimena eman diezaiola abokatu bulego baten laguntza juridikoa eskatzeko,
- auzi horretan Etche Avocats bulegoa izendatzea,
- prozedura horri loturiko gastu eta sariak ordaintzea.

Bacardatz jaunak galdetzen du istripu hori lanen denboran edo ondotik gertu ote den.

Auzapez andereak ihardesten dio lanen bukaera aldera gertatu zela. Zehazten du argazkiak hartu zituela, bera biktimarekin elkartu eta istripuaren lekura joan baitzen. Pertsona hau leku batetik pasatu da, non "travaux" panel handi bat ezarria zen trafiko argi gorri baten aitzinean; argia eta panelaren artean pasatu eta erori da. Garai hartan oinezkoentzako pasabide babestu bat bazen metro bat urrunago.

Bacardatz jaunak ohartarazten du istripu horrentzat pertsonak herriaren kontra egiten duela. Galdetzen du ea herriak enpresaren kontra joko duenez.

Auzapez andereak erantzuten dio hori asurantzaren artean ikusiko dela.

Magis jaunak zehazten du epaileak dituela batzuen eta besteen erantzukizunak finkatuko. Zer erranen duen goaitatu behar da. Argi da, auzapez andereak erran duen bezala, pertsona hori joan behar ez zen leku batean erori dela. Baina, behin eta berriz errana izan den bezalaxe, lanak behar diren arauak betez egin dira.

Auzapez andereak zehazten du pertsona bazter horren kontra behaztopatu dela, baina bazter hark arauak betetzen zituela. Zoritzarrekoa izan da.

Bacardatz jaunaren aburuz, deitoragarria da pertsona horrek herriaren kontra egitea.

Bardin jaunaren ustez, normala da, istripua Kanbo herrian gertatu baita. Epaia arabera, herriak lanak egin dituen enpresaren kontra jo lezake.

Auzapez andereak bozetara ematen du.

Aho batez onartua.

14 – Auzapezaren erabakien komunikazioa.

Kolektibitateen kode Orokorreko L.2122-22 eta L.2122-23 artikuluen eta Herriko Kontseiluaren 2017ko uztailaren 22ko deliberoen arabera, Auzapez andereak jakitera ematen ditu 2017ko uztailaren 1etik agorrilaren 26ra hilerriko kontzesioak eman eta berreskuratzeko hartu dituen erabakiak:

- 15 urteko kontzesioen erostea: 1
- 30 urteko kontzesioen erostea (+ hilobiak): 2
- 15 urteko kontzesioen luzapena: 2
- Urririk ziren lur zatiak berriz hartzea: 2

Ehorzketa kontzesioen diru sarrerak 1 420 €koak dira eta hilobienak 4 140 €koak.
Orotara 5 560 €.

15 – Beste galderak.

Auzapez andereak, iragan Kontseiluko bilkura batean oposizioak egin baldereiz erantzuten die.

- Hirigintza auzibideari dagokionez.

Teilatu bat hirigintza arauen kontra egiteagatik ideki den auzibidea iragan ekainaren 29an epaitua izan da Baionako auzitegian:

- Jardun publikoari dagokionez: arau-hauslea errudun epaitua izan da leporatzen zitzaizkion gertakariengatik. Teilatua berriki arauetara egokitu duenez, 1 500 €ko isun bat ordaintzera zigortua izan da.
- Jardun zibilari dagokionez: Kanboko herriak arau-hauslea 3 000 €ko kopuru bat ordaintzera behartu du eragindako kaltearen ordainez, gehi 1 000 € prozedura gastuengatik.

- Musdehalsuenbordaren erostea: 2000ko apirilaren 14ko erabaki batean, Herriko Kontseiluak Musdehalsuenborda jabegoa 79 273,49 €ren truke erostea erabaki zuen.
- Auzapez andereak jakitera ematen du Patxi Arnis jauna kontratatua izan dela Arnagako baratzezain bezala 2017ko irailaren 1etik goiti, joan den uztailaren 6ean zendu den Roger Narbey jauna ordezkatzeko. Postu horretan ziharduen jadanik 2015eko maiatzaren 4etik erri ziren langileak ordezkatzeko.
- Lespade andereak oroitarazten du Paxkalekuko zikiroa irailaren 16ean egingen dela larunbatez. Paxkalekuko lehiaketaren finalak arratsaldeko 4etan hasiko dira eta ondotik zikiroa. Zikiorako erreserbak Pil Pil-en hartu beharko dira edo han bertan azken momentuan.

Goytino jauna gelan sartzen da.

- Irailaren 16ari dagokionez, Hiriart-Urruty andereak oroitarazten du manifestaldi biziki inportantea badela egun horretan Baionan.

Izatez, Auzapez andereak erantzuten dio gai hori solasgaietan sartua zela, bestelako galderetan. Sud Mines proiektuaren aurkako manifestaldia izanen da Baionan arratsaldeko 4etan. Berak pertsonalki ezingo du han izan, bi ezteia dituelako, baina denak animatzen ditu hara joatera.

- Etchelecu jaunak oroitarazten die Herriko Kontseiluko kideei aspaldian aurreikusi zutela herriak Debako jendeei harrera egun bat egin behar ziela. Alde batetik Arnaga eta Behereko Plazako bisitak helduentzat (hogeita bost bat lagun) eta haurrentzako futboleko jolasteko; iaz Kanboko autobus bat joan zen Debara. Taldearen neurria ez da segurua, ezen bezperan Debako arduradun batengandik ukan duen dei batek dioenez, hurrek muga pasatzeko gurasoen idatzizko onesmena behar baitute, eta ondorioz baliteke haurren kopurua nahi baino txikiagoa izatea. Jinen diren helduen erdia pala jokalaria dira eta ezker paretan jokatu nahi dute absolutuki.

Irastorza jaunak berresten du ezker pareta libre izanen dela.

10:30etan iritsi behar dira eta segidan Arnagako bisita eta ondotik Behereko plazakoa. Bazkaria Larrazkena gelan 13:00 edo 13:30 inguruan.

Birazkatze batzordeko kideak harrera egitera gomitatzen ditugu, baita lagundu nahi gaituzten guztiak ere.

Lespade andereak galdetzen du ea erantzunik ukan ote duten Arnagatik.

Etchelecu jaunak baietz. Ondarearen egunak dira momentu horretan. Arnagan jende anitz espero dute, baina 10:30etan heltzen badira, gidak laguntzen ahalko ditu.

- Goytino jaunak Errobi Isurialdeko Sindika Mistoak iragan igandean antolatu duen eguna oroitarazten du: Errekak'Eau. Hasiera batean ekitaldi hori Behereko plazako lorategian egin behar zen, baina aro txarrarengatik ezker paretan egin da. Nahi baino jende gutiago bazen. Jendeek Errobi ibaiaren bazterrak garbitzeko izena eman behar zuten, baina hor ere gutiago izan dira euriarengatik. Halere, Uztaritzen bi leku garbitu dira. Hondakin ugari bildu da. Bereizketa lan baten ondotik ezker paretan ikusgai ziren. Auzapez andereak sindikatari adierazi dio ekitaldi hori heldu den urtean ere Kanbon egin daitekela. Baina ez da segur, beste kolektibitate batzuek eskaera egin baitute.

Auzapez anderea ekitaldi horren aldekoa da arrunt, eta aktualitateari begira, zeharo zentzuzkoa da. Hortaz, heldu den urtean ere Kanbon egitea nahiko luke. Honela, jende gehiagok ikusiko luke zer lan egiten den uraren inguruan eta norberak zer nolako kalteak egin ditzakeen.

Auzapez andereak baieztatzen du Errobi Isurialdeko Sindikata Mistoari gomita luzatu diola heldu den urtean Kanbora itzultzeko eta agian kanpoan egiteko, jende gehiagok parte har dezan.

- Auzapez andereak Herriko Kontseilua hesten du Sarako besten kari izan den istripu latza aipatuz. Bi familiei bere sostengua adierazten die, baita Herriko Kontseiluari, Auzapez batentzat zama handia baita.
- Beyrie andereak Herriko Kontseiluko kideei ohartarazten die Kanboko bestetan afitxa bat agertu dela: petanka elkarteko afitxa. Beyrie andereak horren fotokopia bat pasarazten du. Irudia ez da kalitate onekoa, Itsasun ezarri zen afitxa baten argazkia delako. Marraskia argiki sexista da, behar bada humore kutsu batekin eginiko arraileriaz. Herriko Kontseiluak berrikitan diru-laguntza bat bozkatu du emazteen defentsarako elkarre baten alde, eta oso koherentea litzaioke Herriak elkarre hari gutun bat igorriko balio. Gutun horretan azalduko lioke zertan holako jokamoldeek kalteak eragiten dituzten, eta gertakari larrietara eraman dezaketen ingurune eta jarrerak gara ditzaketela.

Auzapez andereak ez zuen afitxa horren berri ukan, eta harrিতua da, elkarre horretan emazteak ere baitira.

Beyrie andereak eskatzen du gutun bidez abisatzea elkarre berriz holako afitxa bat argitaratuko balu, diru-laguntza geldituko dela.

Auzapez andereak galdetzen du ea afitxa Kanbon ezarria zenez.

Beyrie anderak dio Itsasun ikusi zuela.

Auzapez andereak afitxa aztertu eta behar den pertsonekin aipatuko duela.

Auzapez andereak Herriko Kontseilua hesten du 20:20etan.